



GURE ARTETIK

BAKOITZAK BERAK DAKI....



AÑA Julen: bigarí Soítzez Garbiaren jaya, eta etzera bere aintzaz jaunartzera juango?

—Ara, Miren: bakoitzak berak daki zer bearí duan, edo zer on zayon. Beraz.....

—Bakoitzak berak dakiela zer on zayon? ¡Jakín bearí beintzat! ¿Eta nori etzayo on onbidetik juatia? Ara, Julen: gustiz atsekabetua aurkitzen naiz zure oldozkera biuría igarí detan ezkeru. Nork esan bearí ziran.....

—Zure ezkongaya onen «gaiztoa» danik, ¿ezta? ¡Ja, ja, ja!

—Gaiztoa..... beintzat ustea gaiztotua dezu, ¿eta zer okearí aundiagorik?

Eta oldoztun, iturítik kendu zuan Miren'ek gañezka zegon bere sula. Burura jasotzen laguntzen zion bitartian erantzun zion Julen'ak:

—Ori da okearík aundiena. ¿Ez da okearigo, zenbait bezela, ordi edo jokozale izatea, naiz ta elizkoyenak izan? Ba-liteke nik, naiz ta elizara juan ez, zenbaitek baño obeto Jainkoa'ren legea gordetzea. ¿Ez

—Ez. Ezin litekiena da, Jaun-sinismen-gabeak siniste oridunak baño obeto Jainkoa'ren legea gordetzea. Lege oñen lenengo agindua, gauz guzien gain Jainkoa maitatzea danez, maitatuko ba-du Bera'gan sinistea bea'-beareko dualako.

—Beraz, oyek baño obenlariagotzat naukazu?

—Noski. Beren obena geidiaren edo ta beren buruaren kaltezkoa; zurea, Jainko beraren kaltezkoa. Ayena, soin maku'ak, gogo aularen aurka jeikita, berori beronen kaltez arazia; zurea, adimen bidegabetuak Jainko aundiaren aurka jeikita, gogoari bere Egilearen kaltez arazia. Zurea.....

—Miren.....

Eta oi-ez bezela, itun eldu ziran ezkongayak neskearen atadira, beren izketaldia beñere baño lenago amaituaz, eta iñoiz baño azkenagur' laburago zutela.

—Biga' aterako zera?—galde zuan mutilak, neskea atarteaz gora abialtzian.

—Bai; betiko orduan—erantzun zuan neskeak begitu-gabe.

Baña ma'ladia igotzen asterakoan, bat-batian geldituta, biuritu zan mutilari begira, eta arpegira zeto'rkion ur-tantoa kentzeko eskuakin sula-ba'fena igo'rtziaz, otol-egin zion samur':

—Tira, Julen. Utzi gauz oyek eta izan zaite lena. Biga' jauna'tzera edo ta gitxienez beintzat jaupa entzuteraz, o'rtara biartuta zaude-ta.

—Ori..... bakoltzak berak daki.....

Eta txaidiak bera zijoala, aopian amaitu zuan Julen'ak, bere zinismenik ezaren estalga'fi zeukan esatea.



Joranez begitu zuan Miren'ek goizeko jauna'tze oroka'fian ia Ama Neskutzaren aintzaz Mai deunera urbildu ziran gixon-artian bere Julen ote-zegon. Baña ¡bai, zera! E'fiko gizaseme guziak emen zekuskian, eta berak geyen nai zuanik ez. Beste-ainbeste egin zuan jaupa nagusia amaitzian, txadon-atadian, baña..... alpefik. Nai zuanik etzan ageri an, jai-aundikotz jantzita zeuden gizonezko zindo ayen artian.

Eta itun zijoan etxe-aldera, bere biotzari ain atsekabe la'fiya ematen zion egia zinistu-bia'fian, eta zinistu nai-ezik, len ain Jainkozale zindua zan bere ezkongayaren aldakuntza ikusi eta zinistu nai-ezik. Eta bat-batian topatu zan beronekin apain-apain, jaikoz jantzita, txaidian gora zeto'rela.

—Bai, ta zu, Julen?

—Nik..... esan nizun atzo ere bakoitzak berak jakiten duala zer egitia dagokion. Zu zurean eta ni..... nerean. Ori gora-bera, elkar maitatu zeinkegu, eta bata besteakin ondo izan.

—Elkar maitatu, bai, Julen. Baña ez Jaunaren maitasunean elkar-ekin gure gogoak bat egin, eta onen bila nintzan ni.....

—¿Zelako burugabekeri dira, Baña, Miren, zure oyek? ¡Ez dizut ulertzen!

—Ez noski. Eta elkar ulertzen ez geralako, ezin geinkez elkarentzat izan. Ezin, ezin.....

Eta ez-ta-bai, eldu ziran ezkongayak, aurregunian bezela, neskearen atadira, baña zer-esan geyagoz, nalz ta iñoiz bezela zer-esana bere maitasunatzazkoa izan ez.

—Beraz, ¿etzero ariatsaldian aterako?

—Ez, Julen, zurekin joatekotan beintzat.

.....
—Baña Miren..... zure itza.....

—Nere itza, Julen, orain bi urte erbestera bere lanian xerbait ikastera jua zan mutil Jainkozale zindoari emana zan. Eta zu, Julen..... etzera..... ez..... etzera mutil zindo ura. Beraz.....

—Baña geyagoko gabe, Miren?

—Bakoitzak berak daki.....

Eta amildegi izugarri baten ertzetik ikaratua aldentzen dana bezela, aldendu zan Miren bere ezkongayaren ondotik. Au atadiko atean bat-batian utzi eta etxeko maladia laisterka igoan.

Mutila, txaidia gora, berak bere gaiztakeriaren aitzaki ainbeste erabili zitun itzak, neskearen abotik entzutian, beretzat egundo entzun-esan ba-ziran bezela aitu-eziñik, aopian berituan jua zan: «Bakoitzak berak daki.....»

TENE.

